

## ¡AMA BIRJIÑA KONZEZIOKOAI!

Gure Jesusen jaiotza  
 Da munduko eguná  
 T' egun onen goizsentia  
 Da María kutuna.

ANTONIO ARZÁC.

---

### NEGUKO ARRATSETAN SU ONDOAN KONTU-KONTARI.

---

#### GERTALDI BAT.

A....deritzan ibar eder ugaritsuko gizon bat ari zan beñ ardan-  
 gela batean, panparroikeriyan, esanaz, iñon etzala bere ibar artan  
 zan bezelako arto mardul galantik.

Aditzalléen artean zegoen S.... deritzayon baserri beartsuko gizo-  
 na, zeñák, ainbat jardunekin asperturik, esan zion A....koari:

—Bada gizon aundiya bazera ere, badaukat nik nere bazterrean  
 zuk zutik jarri ta eskuarekin burua kenduko ez diozun moduko ar-  
 tolandarea.

—Ori ez liteke—esan zion besteak

—Bada, nai badezu apostu egingo degu.

—Nai dezunenean.

Ala, apostu egiñik, joan ziran S...ko soroetara, nón bertako gi-  
 zonak aurkestu zion besteari, belauneraño iristen ezitzayon arto lan-  
 dare bat, bere burua eldurik zeukala.

Besteak, makurtu bear izan zuen kenduko bazion, eta galdu zuen  
 apostua.